## JAIGIROAN LAPURRETAK EKIDITEKO AHOLKUAK



# ASTE NAGUSIA

Abuztuak 20 - 28 Agosto

## ERTZAINTZAREN AHOLKUAK JAIETAN LAPURRETEI AURRE EGITEKO

**Ez eman lapurrei erraztasunik!**
**Ez ditzatela zure jaiak ozpindu!**

Aste Nagusia! Jaiak!! Ongi pasa!!!
Eta ez ahaztu badela hurkoarenaz jabetu nahi izaten duenik!
Abuztuan izan ohi dute feria!

Psikosirik EZ! Arreta, BAI! Zaindu zure gauzak.
Kontu inguru-minguru zerbaiten peskizan dabiltzanekin.
Ez galdu arretarik.

Karteran, beharrezkoena bakarrik eraman.
Diru-txartelik badaramazu, EZKUTUKO ZENBAKI idatzirik ez karteran!
Lapurtzen badizute, lehenbailehen baja eman telefonoz.

Mobila da lapurrentzako bitxirik desiatuenetakoa.
Zenbat eta ikusgarriagoa, orduan eta tentazio handiagoa lapurrentzat.
Ez gehiegi erakutsi!

Boltsoak, bandolerak... Beti babesean, zeure aurrekaldean eta ongi itxita.
Jende asko dabilen lekuetan, diru-zorroa beti aurreko sakelean

Dirua ateratzerakoan, norbaitek lagunduta egin, edo babestutako kutxazainak erabili.
Eta begiak zorrotz irteeran!

Ez bakarrik utzi balioko gauzarik mahain-gain, aulki, mostradore eta ageriko lekuetan...
ZU OHARTZERAKO DESAGER DAITEZKE!

Alkohola. Neurriz eta arduraz edan.
Lapurrek ere badakite errazago kentzen zaiola zerbait txispatuegi dabilenari!

Txizalarriak ez zaitzala leku ezkutuetara eta bakartietara aldendu.

Delituren baten lekuko bazara, jakinaraz ezazu.

Lapurtzen badizute, berehala jakinarazi!
Diru-txartelak edo mobila lapurtu badizute, baja eman.

Gero, salaketa jarri. Zehatz kontatu gertatu zaizuna.
Lagundu ikerkuntzari.

**ZORIONAK ETA ONDO IBILI!**

((112))
SOS DEIAK

**Bilboko Ertzain-etxea**
**94 – 406 35 88**